



ESKERRAK EMAN zizkion Emilio Lopez Adan *Beltza* hizlariari Txillardegiri, beti askatasunaren eta duintasunaren bila aritzeagatik. JUAN CARLOS RUIZ / ARGITAKU PRESS

## DUINTASUNA HELBURU

Txillardegiren pentsamoldean, esentzialismoen aurkako jarrera nabarmendu du Lopez Adanek

JUAN LUIS ZABALA - DONOSTIA

Txillardegiren pentsaera politikoa aztertzean, haren gogaide eta, neurri handi batean, mirese agertu zen atzo Emilio Lopez Adan *Beltza* idazlea, *Txillardegi, 75 urte euskararen aldeko borrokan* jardunaldien barruan Donostian egin zuen hitzaldian. Hitzaldia Txillardegiri eskerrak emanez amaitu zuen Beltzak, «erakutsi digulako ez dela borrokatu behar irabazteko, boterea hartzeko, askatasunaren eta duintasunaren bila baizik».

«Txillardegi abertzalea» aztertuz hasi zuen Beltzak hitzaldia. Txillardegi abertzalea izan dela eta dela ez duela inork zailantzan jartzen esan zuen. Hori xe izan da «Txillardegiren pentsaera politikoa ardatz nagusia». Abertzaletasun horren barruan, alabaina, «leku nagusia» euskarak du, «Euskal Herriaren oinarria» baita. «Txillardegi euskalduna da, euskaraduna, eta ez du euskararik gabeko euskalduntasunik onartzen».

Txillardegirentzat, «erresuma» edo egitura politikoetatik landa, euskara bera da aberria.

Errealitateak eta joera politiko nagusiek Txillardegiren ikuspegi horrekin ez dutela bat egiten ekarri zuen gogora, ordea, Beltzak. «Komunitate euskaldunak ez du alderdi politikorik. Abertzaleek beren alderdiak dituzte, eta horien barruan euskara gai garrantzitsua da, baina abertzaleen ordezkariak jende guztia- ren ordezkari izateko bokazioa dute, ez soilik euskaldunen komunitatearena». Hori «arazo latza» da, «abertzaleek ez baitute euskalduntasuna beti bereganatu».

Txillardegik beti egin du borroka abertzaleek euskara hizkuntza propio gisa erabil dezaten, eta horren ondorioz egokitu zaizkion gorabehera batzuen barruan, alabaina, «leku nagusia» euskarak du, «Euskal Herriaren oinarria» baita. «Txillardegi euskalduna da, euskaraduna, eta ez du euskararik gabeko euskalduntasunik onartzen».

horretan Txillardegiren «eragina» ikusten da.

Gaur egun nagusitu den ikuspegiaren, euskal komunitatean integratzeko elementu moduan euskarak ez du leku garrantzirik, eta hori ere Txillardegiren nahien aurkako errealitatea da. «Kultur aniztasunaren errespetua aipatzen da, eta ideologia

### E. LOPEZ ADAN 'BELTZA' (Idazlea)

«Erakutsi digu ez dela borrokatu behar boterea hartzeko, duintasunaren bila baizik»

«Egun ere, ikusmolde esentzialista, zurruna, orokorra kritikatu du, beste pario bat egiteko»

nagusia —ez Espainian predikatzeko dena, munduan modan dagoena baizik— abertzaletasun konstituzionala da».

«Komunitate euskaldunaren existentzia, iraupena eta garapena» da, testuinguru horretan, Txillardegiren kezka nagusietako bat, Beltzaren irudiko. Horrekin batera, «Txillardegiren beste kezka garrantziko bat abertzaleen batasuna da». Alderdi abertzaleekin —EAJrekin batez ere— haserreak eta gatazka izanagatik ere, «guztiekin bildu beharra sentitu izan du beti, bestalde».

«Txillardegirengan, borondate abertzalea ez da soilik Euskal Herriaren historiatik, mitoetatik eta esentziatik ateratzen». Beltzaren ustez, «EAJrekin kritika egiten duenean, ezkerrean ideia unibertsalak bereganatzen ditu. Bere nazionalismoari edukia ematen dión ikusmolde unibertsala da, munduan edozein pertsonarentzat balio duena eta hemen ere, noski, aplikatzen dena».

Ikuspegi unibertsal horren barruan, existentzialismoak leku garrantzitsua du. «Norbanakoaren eta herrien iraupenaren sostengurako sentimendu tragikoa bat» erakutsi izan du beti, Beltzaren ustez, Txillardegik —Miguel Unamunorengandik datorrena—, eta, horren aurrean, bizitzari duintasunaren bidez zentzu bat ematearen aldeko jarrerara bat.

### Camusengandik gertuago, Sartrengandik baino

Duintasunaren aldeko borroka horretan, «Albert Camusengandik Jean-Paul Sartrengandik baino gertuago» ikustendu Beltzak Txillardegi. Marxismoarekin izandako harreman gatazkatuak dira horren erakusgarri. «Harreman horiek ez dira berdin irakurtzen orain eta duela 30 edo 40 urte». Pentsatzeko askatasuna murrizten duten erantzun orokorren aurkako jarrera agertu du Txillardegik. «Ez du inoiz sinetsi horrelako erantzun orokor batek ekarriko digunik zoriona. Beti pentsatu izan du libertatea eta duintasuna askoz inportanteagoak direla horrelako gauzetan sinestea baino».

Txillardegiren lehen hiru eleberrietan garbi islatua ikusten du Beltzak Txillardegiren ikuspegi hori. *Elsa Scheelen* nobelan, esaterako, huts egiten dute hala amodioa abtsolutuaren bilaketak nola stalinismoak.

*Exkixu* nobelan, berriz, «Txillardegik ez du bere pentsaera agertzen, talde baten ikusmolde orokorra baizik». *Exkixu*-ko peronaiak ez dira «txillardegianoak», Beltzaren ustez. «*Txillardegianoa* dena da sakrifizioa egiten dutenen aldeko solidaritatea, eta solidaritate horren izenean, nik uste, bere filosofiarekin guztiz bat ez datorren zerbait erakusten du, militantzia jakin batekin lotua. Parentesi moduko bat da».

«Gaur egun ere, Txillardegik ikusmolde esentzialista, zurruna, orokorra kritikatu du», Beltzaren ustez, «beste pario bat egiteko, oso bere estilokoa. Ez dakigu zein izango den pario berriaren oinarria, ez du ematen irabazteko duenik ere. Baina hartu duen jarrera guztiz txillardegianoa da».

Txillardegiren omenezko jardunaldiak gaur amaituko dira, Pilartxo Etxeberria irakaslearen hitzaldiarekin. Txillardegik hizkuntzalariaren arloan egindako ibilbidia aztertu du Etxeberriari. Aurkezle lana Joan Mari Torrealdai egingo du.